

ISSN: 2530-6561  
2018ko iraila  
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko  
Lankidetzeta eta  
Garapenari Buruzko  
Ikasketa Institutua

Universidad del  
País Vasco /  
Euskal Herriko  
Unibertsitatea  
UPV/EHU

## Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak

Enekoitz Etxezarreta Etxarri  
Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana



# Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak

Enekoitz Etxezarreta Etxarri\*

Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua.  
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana  
Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua.  
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

## Aurkibidea

|                                                                     |    |
|---------------------------------------------------------------------|----|
| <b>1.</b> Sarrera .....                                             | 5  |
| <b>2.</b> Ikerketa-objektuaren peskizan: nola hesitu landa? .....   | 6  |
| 2.1. Sektore arteko zatiketak: ez lehena, ez bigarrena, hirugarrena | 7  |
| 2.2. Printzipio kontua da                                           | 8  |
| 2.3. Nazio kontabilitateko sisteman oinarritua                      | 10 |
| <b>3.</b> Analisirako lanabesak .....                               | 11 |
| 3.1. Ikuspegi neoklasikoa: Hirugarren Sektorearen teoriak           | 11 |
| 3.2. Ikuspegi juridikoa: Ekonomia Sozialaren kontzeptua             | 15 |
| 3.3. Ikuspegi soziologikoa: Ekonomia solidarioaren ekarpenak        | 19 |
| Ondorioak .....                                                     | 23 |
| Bibliografia .....                                                  | 24 |

\* Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) GEZKI Institutuaren "Gizarte Ekonomia eta bere Zuzenbidea", GIU17/052, Ikerketa Taldearen baitan garaturiko jarduera.

## Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza  
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurrezaga  
Iker Etxano  
Mertxe Larrañaga  
Elena Martínez Tola  
Mikel Zurbano

---

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

**Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak**

Egileak: Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana

hegoak zabalduz - 7. zk. 2018 iraila

ISSN: 2530-6561



[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)

UPV/EHU. Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81  
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91  
Faxa: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa  
Elhuyar Plaza, 2  
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64  
Faxa: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia

138. posta-kutxa  
Nieves Cano, 33  
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

---

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak, Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 3.0 España. Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>



Finantzatzailea:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

**Laburpena:** Jarraian aurkezten dugun lanean Ekonomia Sozialaren teorizazioan nazioarte mailan nabarmentzen diren hiru hurbilketa nagusien errepassoa egiten da. Lehen-lehenik, aztergai den ikerketa-objektua definitzeko erabiltzen diren irizpide ezberdinak aurkeztuko dira. Ondoren, errealitate ekonomiko honen teorizazioan gaur arte gehien garatu diren hiru ikuspegi analitiko nagusiak laburbiltzen dira, horietako bakoitzaren argudio-lerro nagusiak azalduz eta autore eta ekarpen esanguratsuenak bilduz. Bukatzeko, jorraturiko hiru ikuspegi analitiko nagusien ekarpenak eta elementu kritikoak laburpen taula batean jasotzen dira.

**Hitz gakoak:** Ekonomia Soziala, Hirugarren Sektorea, Ekonomia Solidarioa.

**Abstract:** Jarraian aurkezten dugun lanean Ekonomia Sozialaren teorizazioan nazioarte mailan nabarmentzen diren hiru hurbilketa nagusien errepassoa egiten da. Lehen-lehenik, aztergai den ikerketa-objektua definitzeko erabiltzen diren irizpide ezberdinak aurkeztuko dira. Ondoren, errealitate ekonomiko honen teorizazioan gaur arte gehien garatu diren hiru ikuspegi analitiko nagusiak laburbiltzen dira, horietako bakoitzaren argudio-lerro nagusiak azalduz eta autore eta ekarpen esanguratsuenak bilduz. Bukatzeko, jorraturiko hiru ikuspegi analitiko nagusien ekarpenak eta elementu kritikoak laburpen taula batean jasotzen dira.

**Keywords:** This paper reviews the three mayor theoretical perspectives on the Social Economy in the international literature. First, we discuss the different criteria used in the definition of the topic. Second, we offer a review of the analytical foundations of each perspective, the key authors, and their most relevant contributions to the development of the Social Economy as a practice and a concept. We finish with a table that summarises all the issues presented in the paper.



## 1. Sarrera

Ekonomia Sozialak (ES, aurrerantzean), ezer baino lehen, errealitate ekonomiko bat osatzen du, jabego egituran zein etekinen trataeran izaera kapitalistadun enpresa-moldetik bereizitako enpresa mota ezberdinek osatua. Errealitate ekonomiko hau modu zehatz batean definituta dago, eta geroz eta modu sistematikoagoan neurtzen da herrialde ezberdinetan. Europar Batasunaren mailako azken datuei erreparatu gero, ESk gaur egun ordaindutako 13,6 milioi lanpostu sortzen ditu European (19,1 milioi lirateke enplegu ordaindu gabea ere batuz gero), populazio aktibo europarraren % 6,3, hain zuzen ere. Era berean, lanpostu zuzenez harago, ESk 82,8 milioi pertsona boluntario inplikatzten ditu bere jarduera ezberdinetan, eta 232 miloi pertsona dira, kooperatiba, mutualitate zein antzeko erakundeetan mota bateko edo besteko kidegoa mantentzen dutenak<sup>1</sup>.

Europa mailan, beraz, aintzat hartzeko moduko errealitate bat da, nahiz eta herrialdez herrialde beronen pisu erlatiboa ezberdina izan. Tradiziorik handieneko herrialdeetan ES populazio aktiboaren % 9-10 den bitartean (Belgikan, Italian, Luxenburgon edo Frantzia), beste zenbait herrialdeetan apenas heltzen da % 2 enplegatzerara.

Datu estatistikoez harago, ES bada jarduera ekonomikoa beste modu batez ulertzeko hurbilketa teorikoa ere, egungo eredu hegemonikoarekiko bestelakoak diren praktikak ezartzen dituen gutxienik honako esparruetan: gizabanakoen motibazio ekonomikoen gaineko oinarri filosofikoan, ekonomiaren helburuen ezarpenean, ekoizpenaren antolaketan ezarritako gizarte-harremanetan eta etekinen banaketa eredu<sup>2</sup>.

Lan honek aipaturiko errealitate sozioekonomiko hau aztertzeko baliatzen diren ikuspegi teoriko nagusien azalpena egitea du xede. ES hiru ikuspegi analitiko nagusitatik aztertzen dela jorratuko dugu jarraian: lehena, ekonomialari neoklasikoek eskainitako Hirugarren Sektorearen hurbilketa; bigarrena, ikuspegi juridiko batean oinarrituz eraikitzen den Ekonomia Sozialarena; eta hirugarrena, soziologia ekonomikoaren ikuspegitik elikatzen den Ekonomia Solidarioarena.

Hastapenetik, ordea, beharrezko egiten da argibide epistemologiko funtsezko bat egitea: gauza bat da ikuspegi analitikoa, eta beste bat horietako bakoitzak darabilen izendapena. Bi gauza ezberdin dira, nahiz eta elkarren arteko lotura begien bistakoa izan.

Esan nahi duguna zera da: aztergai dugun errealitate sozioekonomiko horri Hirugarren Sektore izendapena ematen dion egile multzoak edo *corpus* teorikoak analisirako ikuspegi konkretu bat baliatzen duela nagusiki azterketa garatzeko, kasu honetan, eskola neoklasikotik eratorritzen den "hautespene arrazionalaren" metodoa. Era berean, errealitate hau Ekonomia Solidario izendapenez bataiatzen dutenetako zenbaitzuek bestelako begiratu bat eskaintzen dute berau aztertzeko, soziologia ekonomikoari loturiko ikuspegi historiko eta antropologiko batean oinarritua. ES kontzeptu gisa proposatzen duen eskola teorikoak, aldiz, nagusiki juridikoa den ikuspegia proposatzen du errealitate hau hauteman eta eredu bereizgarri gisa teorizatzeko.

Lan asko dira ESren inguruko kontzeptu ezberdinak definitu eta ezberdintasunak finkatzeko egin direnak<sup>3</sup>. Hirugarren sektorea, ekonomia soziala, ekonomia solidarioa, enpresa soziala, mozkinen besteko erakundeak, ekonomia sozial solidarioa, ekonomia sozial eraldatzailea... hamaika dira ESri ingurumarian gehitzen zaizkion adjektiboak edo erabiltzen diren adiera ezberdinak, sarri askotan modu nahasgarrian erabiltzen direnak, horien arteko mugak ezartzea ez baita beti lan erraza.

---

1 Monzón eta Chavez (2016).

2 Artis eta Demoustier (2013) in Hiez eta Lavillunière (zuz.) (2013).

3 Geu ere saiatu gara, trebetasun handiagoarekin edo txikiagoarekin, aurretiazko zenbait lanetan ekarpen ezberdinak egiten. Lehen saiakera batean, bere aldetik aztertu izan ditugu Ekonomia Soziala, Mozkinen Besteko Erakundeak, Enpresa Sozialak eta Ekonomia Solidarioa kontzeptuak, horien arteko antzekotasun eta ezberdintasunen gaineko analisi alderatua proposatuz (Perez de Mendiguren, Etxezarreta eta Guridi, 2009). Ekonomia Sozial eta Solidarioa kontzeptuaren inguruko analisisia ere proposatu izan dugu bestelako lanetan, bi kontzeptu horien arteko tentsioak eta interpretazio ezberdinak jasoz (Perez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015); beste analisi ildo bat izan da Ekonomia Sozialaren bilakaera kontzeptualarena (Etxezarreta, Pérez de Mendiguren eta Morandeira, 2014). Azken saiakera batzuk eginak ditugu, azkenik, ekonomia sozialeko erakundeen kudeaketa ereduaren inguruan, fundatze-printzipioak eta praktika errealean artean ageri diren tentsioak aztertuz (Errasti, Bretos eta Etxezarreta, 2016; Perez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2016;).

Jordi Estivillen hitzak geureganatuz (2015), honako honetan ez dugu "mugazain zorrotzaren" papera jokatu nahi izango, kontzeptu bakoitzaren baitan zein praktika konkretu sar litekeen eta zein ez epaitzen ez dugu jardungo. Horrelako saiakera askok "txikle izaerako" definizioak egiten amaitzen dute, aztergai dugun errealitatea nahi beste luzatuz edo laburtuz; edo "labana moduko" definizioak proposatuz, bestela, errealitate konplexu eta elkarlotuak zatituz eta konpartimentu berezietan isolatuz; edo definizio "nomadak" iradoki eta adierak herrialdearen arabera egokitu daitezkeela defendatuz.

Aipaturiko adiera horiek guztiak dezente berriak dira, "in itinere" edo "eraikitze lanetan" aurkitzen dira, ez dute hizkuntzen arteko itzulpen argirik beti, eta, noski, ez dira neutroak. Adiera bakoitzak hurbilketa ideologiko, kultural eta politiko ezberdina ezkututzen du bere baitan. Eta, ondorioz, errealitate hori hautemateko begiratu ezberdinak izateaz gain, honen gaineko proiektzio, igurikapen eta exijentzia mailak ere ezberdinak dira.

Bestelako lan-ildo bat ESko esperientzia konkretuen inguruko analisisan zentratzen da, horien antolakuntza-eredu bereizgarriak teorizatuz, edota horien erretorika eta praktika errealean artean antzematen diren tentsioak aztertuz<sup>4</sup>. Lan honetan ez dugu halakorik entseatuko, esan bezala, ikuspegi analitiko nagusien errepasoa egitea baita gure asmoa.

Horiek horrela, lan honetan jaso gabe geratuko dira, orobat, ESren inguruko bestelako kontsiderazio eta balorazio lanak, direla honen indargune eta erronka nagusien inguruko azterketak, direla bestelako korrante kritikoekin komunean partekatzen dituen elementuen analisiak ere<sup>5</sup>.

Gure ekarpenaren hutsune nagusiak izango dira, bestalde, gure begiratuaren berezko miopiak, izaera akademikodun testu honetan apenas egongo baita tokirik gizarte-eragileengandik eraikitako diskurtsoak jasotzeko, eta nahiatez, ikuspegi nagusiki eurozentrikoa izango baita hemen jasoko dena, beste latitude eta hizkuntza batzuetan jorraturikoa jasotzeak duen interesak luzaz gaintu arren lan honek piztu lezakeena.

## 2. Ikerketa-objektuaren peskizan: nola hesitu landa?

Esan bezala, ESren inguruan landuriko hiru ikuspegi analitiko nagusiak errealitate konkretu batzuen gaineko analisisan eraikiak izan dira. Ikuspegi analitikoaren ezberdintasuna, beraz, bi unetan gertatzen da: zeri begiratzen zaion, eta nola begiratzen zaion. Bietan dago aldea. Nola behatu izan den aztertu aurretik, argitu dezagun, beraz, zeri begiratu izan zaion lehenik. Edo zein izan diren lan honetan ES deritzogun ikerketa-objektu hau zedarrizteko, mugatzeko, erabilitako irizpideak.

Ikuspegi neoklasikoak, hirugarren sektorearen izendapenarekin, analisia mozkinen besteko erakundearen gainean egin izan du. Ekonomia sozialaren ikuspegiak tradizio kooperatiboaren iturritik edaten du nagusiki. Ekonomia solidarioaren hurbilketa teorikoak, aldiz, kooperatibismo klasikoaren moldea gaintu izan duten zenbait esperientzia konkreturen gainean eraikiak izan dira, bereziki erreparatu izan zaielarik beren barne osakeran pluraltasun ekonomikoan oinarrituriko esperientziei, eta beren praxian dimentsio politikoa aintzatesten duten esperientziei<sup>6</sup>.

Aztergai dugun errealitate hau nolabait hesitzeko lan nekeza egiteko, estrategia ezberdinak garatu izan dira. Guk, lan honetan, hiru estrategia nagusitan laburbilduko ditugu: sektore arteko banaketa, printzipioen araberrako zedarriztea eta nazio kontabilitatearen ikuspegia.

---

4 Errasti et al (2016), Heras-Saizarbitoria (2014); Perez de Mendiguren eta Etxezarreta (2016).

5 Ikus, ildo horretatik, Laville eta García-Jané (2009), edota Hiez eta Lavillunière (2012).


6 Lavilleren aburuz, gertutasunezko zerbitzuak (herrialde aberatsetan gizarte-zerbitzuei loturikoak eta herrialde pobretuetan ekonomia "popularrari" loturikoak), bidezko merkataritza, mikrofinantzak eta moneta sozialak (Laville eta García-Jané, 2009). Askuncek (2007), bere aldetik, ikusmira gertuago ekarrita, esperientzia hauek lotu izan ditu: ingurumenarekiko errespetuzko negozioekin (birziklatze eta berrerabilpen enpresak, nekazaritza ekologikoko ustiategiak), gizarte-bazterketan diren pertsonen integrazioa bilatzen duten enpresekin (gizarteratzeko edo laneratzeko enpresak), bitartekaritza finantzario alternatiboko egitasmoekin (banka etikoa, moneta osagarriak), elkartruke ez-monetarioko egitasmoekin (trukeak, denboraren bankuak, ezagutzen elkartruke egitasmoak), edota bidezko merkataritzako egitasmoekin.



## 2.1. Sektore arteko zatiketak: ez lehena, ez bigarrena, hirugarrena

Lehen estrategia, intuitiboena ziur aski, errealitate hau sektore gisa kontsideratu, eta beste bi sektoreen aurkakotasunean aurkeztea izan da: hirugarren sektorea edo hirugarren sistema. Bada, beraz, sektore bat berezia, hirugarrena, beste bien ukazioz definitzen dena. Ez publikoak eta ez pribatu kapitalistak diren erakunde guztiek beteko lukete, beraz, hirugarren sektorearen espazio hori.

Pearce egin zuen ezagun "hirugarren sistema" gisa izendatuz, eta jarraian agertzen den moduan irudikatuz<sup>7</sup>:



7 Pearce (2003).

Irudian ikus litekeen moduan, jarduera ekonomikoa egiten duten eragile guzti-guztiak hiru sektoretan bana ditzakegu: lehena, pribatu-kapitalista; bigarrena, publikoa; eta azkena, hirugarren sektorea. Sektoreen arteko zatiketa hori jarduera ekonomikoen bi ezaugarriren arabera egiten da: jabego egitura eta mozkinen gaineko politika. Lehen sektorea jabego pribatukoa da, eta logika kapitalistak bultzaturiko mozkinen maximizatzean zentratuta legoke. Bigarrena, jabego publikokoa eta mozkinen besteko<sup>8</sup> logika batek bultzatua litzateke, demokratikoki hautaturiko eta planifikazioan eta birbanaketa logiketan oinarritutako erakundeek osatua. Hirugarrena, jabego pribatu-sozialekoa eta mozkinen besteko logikek bultzatua litzateke, kasu honetan elkarren arteko laguntzan eta izaera mutualistan oinarrituriko erakundeek osatua.

Hirugarren sektore hau, ukazioz definitua den neurrian, "guztia barnebiltzen duen zaku" gisa ikusteko arriskua agerikoa da. Ez publikoa eta ez pribatu-kapitalista diren neurrian, zaku berean sartzen ditu etxeguneei loturiko ekonomia informala eta lan elkartuko kooperatiba industrialak, esaterako, edo gobernu kanpoko erakundeak eta kreditu kooperatibak<sup>9</sup>. Ideia bezala, hortaz, nahasmena sor dezakeen ideia da hirugarren sektorearena, instituzio eta portaera aniztasun ikaragarria barnebiltzen baitu bere baitan<sup>10</sup>.

Sailkapen honen "txikle" eta, era berean, "labana" izaerak bere baliagarritasuna kolokan jartzen duen arren, seinalatzen dituen bi tentsio-gunek ikuspegi analitiko ezberdinen gaineko zenbait pista aurreratzen dituzte: lehena, ESren eta merkatuaren arteko harremana, eta bigarrena, ESren eta estatuaren artekoa.

Lehen kasuan, tentsiozko eremuak merkatuak ezarritako mozkinen maximizatze eta ESk zein estatuak berez dituzten birbanaketa funtzio eta antolaketa demokratikoaren artean sumatzen dira. Kooperatibek gorpuzten dute ondoen tentsio hori, askok eta askok merkatu-arauen arabera funtzionatzen duten arren, gainerako enpresa pribatuen aldean bestelako helburu sozialak erdiestea baitute xede. Bigarren kasuan, ESren eta estatuaren arteko mugak geroz eta izaera lausoagoa hartzen du, azken urteetan ugaritzen ari diren izaera hibridoko erakundeak direla medio. Hori horrela, hainbat esparrutan (nekazaritza politikak, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza zein osasunean), estatuaren eta hirugarren sektorearen arteko lankidetzeta edo ituntze politikak gauzatzen ari dira, eta, horien bitartez, hirugarren sektoreak beregain hartzen du zerbitzu horien ekoizpena, baina, betiere, estatuaren erregulazio eta gainbegiratze zorrotzen bitartez. Erlazio eredu horiek, kasu askotan, zalantzan jartzen dute hirugarren sektorearen autonomia, baita formalki independenteak diren egiturak mantentzea ere.

Sektore arteko banaketarena lehen pista bat litzateke, beraz, ES zer ez den definitzen laguntzen diguna (ez publikoa, ez pribatu-kapitalista), nahiz eta ES zer den zehazteko bestelako estrategiak ere baliatu beharko ditugun.

## 2.2. Printzipio kontua da

Ikuspegi sektorialaren ahuleziak agerikoak izanik, ESko eragileek beraiek beren esparrua, beren jokaleku propioa nola ezaugarritu izan duten aztertzea da beste estrategietako bat.

ESko erakunde ezberdinek printzipio-deklarazio ugari egin izan dituzte, esan genezake Rochdaleko lehen kooperatibatik hasi eta gaur arte. Dela elkarren artean osaturiko sareen bitartez, dela bestelako ordezkaritza organoen bitartez, ESko eragileak definitzen joan dira bestelako erakundeekiko zein ezaugarrik egiten dituzten berezi. Jarraian jorrotzen dugun koadroan hiru adibide jarriko ditugu, aurrerago jorrotuko

8 "Mozkinez besteko" adiera hobesten dugu testu honetan, honako arrazoiengatik. Gaztelaniaz modu parekoan erabiltzen dira *entidades no lucrativas* eta *entidades sin ánimo de lucro*. Euskarazko literaturan, aldiz, "Mozkin Asmorik Gabeko Erakundeak" adiera da gehien erabiltzen dena, eta *no lucrativas* horren zentzuan erabiltzen da, gure iritzian *sin ánimo de lucro* adierekin gertutasun handiagoa daukan arren. Ingelesak lagun diezaguke bidea argitzen: *nonprofit* eta *not for profit* adierak ezberdintzen dira, eta hargatik hautatu dugu "Mozkinez Besteko" adiera erabiltzea, "no lucrativas" edo "non-profit" horien zentzuan.

9 Arazo hau, hala ere, ikuspegi sektorialarena da, ez soilik hirugarren sektorearena, lehen sektoreak barnebiltzen baititu, esate baterako, auzoko bizargile autonomoa edo nazioarteko multinazionala ere, zeinak jabego egituraren eta mozkinen gaineko politikan zerikusirik ez duten bi eredu lirakeen.

10 Salamon eta Sokolowski (2016).

ditugun hiru ikuspegi analitikoek lotuak: lehen, Europar Batasunak finantzaturiko *Third Sector Impact Project* egitasmoaren barruan ezarritako printzipioak<sup>11</sup>; bigarrena, 2002an *Social Economy Europe* Europar Batasunean kooperatibek, mutualitateek, fundazioek eta elkarteek duten ordezkari organo gorenak zerrendaturiko printzipio multzoa<sup>12</sup>; eta, hirugarrena, RIPESS Ekonomia Sozial Solidarioko nazioarteko sareak adosturiko printzipioen karta<sup>13</sup>.

| 1. taula: Printzipioak                           |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
|--------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Hurbilketa teorikoa                              | Printzipioen deklarazioa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| Hirugarren Sektorearen Printzipioak              | <ul style="list-style-type: none"> <li>i. Erakundeak (formal zein informalak)</li> <li>ii. Pribatuak</li> <li>iii. Autogobernatuak</li> <li>iv. Atxikipen askekoak</li> <li>v. Sorturiko mozkinen banaketa guztiz edo era esanguratsuan mugatua dutenak</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| Ekonomia Sozialaren Printzipioen Karta           | <ul style="list-style-type: none"> <li>i. Pertsonaren eta helburu sozialaren lehentasuna kapitalaren aurretik</li> <li>ii. Atxikipen borondatezkoa eta irekia</li> <li>iii. Bazkideen kontrol demokratikoa (fundazioak salbuetsita, bazkiderik ez baitute)</li> <li>iv. Bazkide erabiltzaileen interesen eta interes orokorraren bateratzea</li> <li>v. Erantzukizun eta elkartasun printzipioen defentsa eta ezarpena</li> <li>vi. Autonomia kudeaketan eta botere publikoekiko independentzia</li> <li>vii. Mozkinen gehiengoa garapen iraunkorra, bazkideen zerbitzuen interesa eta interes orokorraren aldeko helburuetara bideratzea</li> </ul> |
| Ekonomia Sozial Solidarioaren Printzipioen Karta | <ul style="list-style-type: none"> <li>i. Humanismoa</li> <li>ii. Demokrazia</li> <li>iii. Elkartasuna</li> <li>iv. Inklusibotasuna</li> <li>v. Subsidiariorotasuna</li> <li>vi. Aniztasuna</li> <li>vii. Sorkuntza</li> <li>viii. Garapen iraunkorra</li> <li>ix. Berdintasuna, ekitatea eta justizia guztiontzat</li> <li>x. Herrien arteko integrazioa eta errespetua</li> <li>xi. Ekonomia plural eta solidarioa</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                      |

Iturria: Geuk egina.

Printzipio deklarazioen bitartez, sektoreko erakunde ezberdinei, logika komun partekatua eman nahi zaie, neurri berean bestelako erakundeekiko zer ezaugarritan bereizten diren agerian utziz: pribatuak dira, autonomoak, demokratikoak, lanean oinarrituak eta ez kapitalean, pertsonen eta helburu sozialen zerbitzura

11 Europar Batasunak finantzaturiko egitasmo zabal honetan, Europako 10 herrialdeetako unibertsitateetako 30 bat ikerlarik parte hartu dute, hirugarren sektorearen nazioarteko analisi alderatua eginez lau lan-ildo nagusitan: kontzeptua, neurketa, inpaktua eta zailtasunak. Ikus <https://thirdsectorimpact.eu/>

12 <http://www.socialeconomy.eu.org/>

13 Ekonomia Sozial Solidarioa sustatzeko kontinente arteko sare nagusia da RIPESS, eta Liman 1997an eratu zenetik, erakunde horien bilgune eta ordezkari funtzioa jokatzen du antolatzen diren topaketa eta lan dinamiketan. Ikus <http://www.ripess.org/>

daude, elkertasunezko praktikak egiten dituzte barne-mailan zein gizarteari begira, mozkinen trataera berezia dute, lankidetzaz hobesten dute lehiaren gaintetik, inguruarekiko konpromisoa eta ingurumenarekiko kezka barneratzen dituzte...

Printzipio zerrenda horrek aztergaia ezaugarritzen laguntzen duen neurri berean sortzen ditu arazo berriak ere. Alde batetik, argitu gabe uzten duelako printzipio horiek kudeaketa mailan islatzeko erabiltzen diren egitura, mekanismo eta ebaluazio irizpideen aferra. Puntu horretan, erretorika eta praktika errealearen arteko desegokitze edo "desakople" gisa ezagutu izan den fenomenoaren aurrean geundeko<sup>14</sup>. Eta praktika errealean berezko printzipioetatik urrundu eta bestelako logiketan murgiltzera daramaten "isomorfismo" prozesuen aurrean<sup>15</sup>.

Alabaina, bestalde, printzipio horiek diskurtsiboki ESkoak ez diren eragileek bereganatzen dituzten unean bertan, printzipio bereizgarri izateari uzten diote. Horixe gertatzen da, esaterako, Enpresen Gizarte Erantzukizuna bezalako proposamenekin, zeinak edozein enpresa-motak ingurumen eta gizarte-mailako kezkak barneratzeko tresnak eskaintzen baititu, eta, beraz, ESren elementu bereizgarriak edozein motatako jabego-egitura eta mozkinen trataera duen erakunderen eskura leudeke<sup>16</sup>. Neurri apalagoan, baina bertsuan, eragin izan du Enpresa Sozialaren adierak ere, ESren tradizioetik urrun leudekeen enpresa motei "sozial" izenondoa jarri ahal izatea ahalbidetzen baitu<sup>17</sup>.

### 2.3. Nazio kontabilitateko sisteman oinarritua

Orain arte aipaturiko zedarritze estrategien hutsuneak betetze aldera, beste estrategia bat izan da errealtate horien identifikazioa egitea nazio kontabilitateko irizpideen arabera. Ariketa horixe bera egina dute mozkinen beste erakundeek, zein ESko eragileek ere.

Lehen kasuan, Nazio Batuen Estatistika Dibisioak 2003an argitaraturiko Eskuliburuan (*Handbook on Nonprofit Institutions in the System of National Accounts*) ezartzen ziren mozkinen beste erakundeak Nazio Kontabilitate Sistemaren arabera identifikatuak izateko irizpideak, gero horien "kontu sateliteak" egitea hobetsiz:

| 2. taula: Mozkinen beste erakundearen definizioa, nazio kontabilitatearen arabera |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|-----------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Mozkinen Beste erakundearen definizio operatiborako irizpideak                    | <ul style="list-style-type: none"> <li>i. Mozkinen banaezintasun printzipioa betetzen duten erakundeak.</li> <li>ii. Izaera boluntariokoak, baliabide boluntarioak mobilizatzeko gaitasuna duten erakunde gisa ulertuta.</li> <li>iii. Egitura formalekoak, hau da, instituzionalizazio maila bat izan behar dute, etxeguneetako ekonomiek eta gizarte-sare informalek ez bezala.</li> <li>iv. Autonomoak eta autogobernudenak, gobernu organo propioak eratuak izan behar dituzte eta ezin dira kanpoko erakundearen kontrolpekoak izan.</li> <li>v. Izaera pribatukoak, edo sektore publikotik instituzionalki berezitako erakundeak, nahiz eta gradu ezberdinetan finantziario publikoa jaso.</li> </ul> |

14 Heras-Saizarbitoria (2014).

15 DiMaggiok eta Powelek (1983) ezagun egin zuten "isomorfismo instituzionalaren" kontzeptua, askotan eta askotan aipatua izan den *The Iron Cage Revisited* artikuluan. Burdinazko kaiola kontzeptua, nolahi ere, Max Weber soziologoari harturikoa da, kapitalismoak eragindako bizitza sozialaren arrazionalizazio prozesu hazkorra definitzeko erabili baitzuen, baita gizarte ordenaren burokratizazioaz jarduteko ere. Burdinazko kaiolaren metaforak aditzera ematen duena da, nola norbanakoak edo erakundeak harrapatuak geratzen diren kontrolean, kalkulu arrazionalean eta efizientzian oinarrituriko sistemen logiketan.

16 Interesgarria da, ildo horretatik, Monzónek (2016) plazaratzen duen gogoeta, argudiatzen baitu, kooperatibismoak modu derrigortuan eta ez borondatezkoan, printzipio kooperatiboek hala aginduta, betetzen dituztela gizarte-erantzukizuna bezala deitu izan diren praktika garrantzitsuenak.

17 Lan honetan ez dugu Enpresa Sozialaren adieraren inguruko analisirik barne hartuko. Ikus, nahi bada, gai honi buruz aurretiazko lanetan egin ditugun analisiak (Perez de Mendiguren, Etxezarreta eta Guridi, 2009).

Bigarren kasuan, Europar Batzordearen gidaliburu bat da baliatzen dena, kooperatiba eta mutualitateen kontu sateliteak egiteko gidaliburua, hain zuzen ere (*Manual for drawing up the satellite accounts of cooperatives and mutual societies*), eta, horren arabera, ES bi azpisektoretan banatzen da (merkatukoa eta ez merkatukoa), eta horietako bakoitzean erakunde nagusien tipologia juridikoak ezartzen dira. Jarraian agertzen den koadroan, OVES/GEEB Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiak ontzat jotzen duen definizioa jasotzen da, aipaturiko gidaliburuak ezarritakoari jarraiki eta figura juridikoak bertoko errealitatera egokituz:

| 3. taula: Gizarte Ekonomiaren definizioa, nazio kontabilitatearen arabera |                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                               |
|---------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Enpresa azpisektorea edo merkatuko azpisektorea                           | Enpresa ez finantzarioak                                                                                                            | Kooperatibak<br>Lan-sozietateak<br>Enplegu-zentro bereziak<br>Laneratzeko enpresak<br>Arrantzale kofradiak<br>Nekazaritzako eraldakuntza baltzuak<br>Merkatuko beste ekoizle pribatuak (elkartek, fundazioak eta sozietateak) |
|                                                                           | Finantza-entitatea                                                                                                                  | Kreditu kooperatibak<br>Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak<br>Gizarte-ekonomiako enpresen elkarrekiko berme-sozietateak                                                                                                    |
| Merkatukoak ez diren ekoizleen azpisektorea                               | Gizarte-ekintzako elkartek<br>Gizarte-ekintzako fundazioak<br>Etxeen zerbitzura dauden beste irabazi-asmorik gabeko erakunde batzuk |                                                                                                                                                                                                                               |

Iturria: OVES/GEEB.

Ikuspegi juridiko horretan oinarritu izan da, aurrerago ikusiko dugunez, ekonomia sozialaren ikuspegi analitikoa, eta irizpide horrek bere bertuteak izan badituen arren, arazoak ere planteatzen ditu ikerketa lanari begira. Bertuteen artean leudeke sektorea zehatzago identifikatzeko eta neurtzeko modua eskaintzen duela, baita nazioarteko alderaketak egiteko zein mota ezberdinetako politika publikoak bideratzeko ere. Arazoen artean, ordea, askok nabarmenduko dutena da irizpide horren gaitasun azaltzaile ahula, ez baitu erakunde horien sorrera motibazio edo baldintzen inolako azalpenik eskaintzen, ez ikuspegi historikorik garatzen, ez eta figura juridikoei loturiko balioen aplikazio erreala neurtzeko inolako lanabesik eskaintzen ere. Jarraian jorratuko ditugu eztabaida analitikoaren ikuspuntu nagusiak.

### 3. Analisirako lanabesak

#### 3.1. Ikuspegi neoklasikoa: Hirugarren Sektorearen teoriak

Adostasun nahikoa ageri da ikuspegi honen iturburua identifikatzean: ideologia neoliberalerako zientzialari politikoen altzoan sortutako Hirugarren Sektorearen teoria (hasiera batean AEBetan sortu zen, eta, gerora, mundu anglosaxoira hedatu zen).

Lehenik, beraz, maila politikoan sustatu zen neurri neoliberal sorta batek "elkartegintzaren eztanda globala"<sup>18</sup> ekarri zuen iragan mendeko 70eko hamarkadatik aurrera, eta horrek pixkanaka eskola neoklasikoaren baitako zenbait ikerlariren interesa erakarri zuen.

18 Salamon eta Anheier (1997).

Teoria horien abiapuntuan, beraz, elkarteen pisu ekonomikoaren gorakada zegoen, jarduera produktiboen egiturazko doikuntza baten testuinguruan. Horrela, bada, ehun produktiboaren "tertziarizazio" prozesuaren ondorioz, gaur egun herrialde aurreratu gehienetan enpleguen ia hiru laurdenak zerbitzuen sektorean daude, eta, horien artean, gertutasunezko edo "harremanetan intentsiboak" diren zerbitzuak nabarmentzen dira, hezkuntza, osasuna edo gizarte-zerbitzuei loturiko zerbitzuak, besteak beste<sup>19</sup>.

Zerbitzu mota horietan, estatuaren papera, bereziki, baina baita enpresa pribatuena ere, betidanik handia izan den arren, elkarteen pisu erlatiboa handiagotzen joan da han eta hemen. Erakunde horiek izendatzeko "adieren inflazio" bat gertatu zen lehenik. "Mozkin asmorik gabeko sektorea", "sektore boluntarioa", "sektore filantropikoa", "karitatezko sektorea", "gobernuz kanpoko erakundeen sektorea"... Izendapen ugariaren bitartez aztertu ziren esperientzia horiek. Eta horren ondotik etorri ziren lehen nazioarte mailako ikerketak, elkartegintzaren fenomeno horren irismena neurtzeko asmoz.

Guztien artean, John Hopkins Unibertsitatetik 90eko hamarkadan abiarazitako *Johns Hopkins Comparative Nonprofit Sector Project* ikerketa-lanak lortu zuen erreferentzialtasun nagusia, lehen aldiz Hirugarren Sektore hori definitzeko irizpide batzuk ezarri baitziren nazioarte mailan (2.3. atalean jasotakoak).

Definizioaz harago, ordea, kasu honetan, ikerketa-lan horien analisi-ikuspegia da jorratu nahi duguna.

Esan bezala, 90eko hamarkadatik aurrera agertzen joango diren Hirugarren Sektoreari buruzko teoria gehien-gehienak ekonomiaren ikuspegi neoklasikoan txertatzen diren autore anglosaxoien eskutik datoz.

Ikuspegi neoklasikoaren abiapuntua da merkatu sistemaren egokitasuna proposatzea, baliabideen esleipenik optimoena lortzeko. Kasu batzuetan, ordea, merkatuak "inperfekzioak" agertzen dituenean, teoria ortodoxoak defendatuko du Hirugarren Sektoreak modu egokiagoan erantzun dezakeela akats horien aurrean, enpresa pribatuak baino. Ekonomialari neoklasikoen argumentu-ildoak paradoxa honen azalpenean garatzen da: efizientzia ekonomikoaren iturria mozkinaren bilaketa dela defendatzen den bitartean, azaltzen da nola zenbait jardueratan mozkin-asmorik gabeko erakundeak agertzen duten efizientzia handiagoa, bereziki, "harremanetan intentsiboak" diren zerbitzuen kasuan.

Harremanezko zerbitzu horiek (pertsonei nagusiei bideraturiko etxez etxeko zerbitzuak, haurren zaintza zerbitzuak...) transakzioa eman aurretik nolakoak izango diren ezagutzerik ez dagoenez, eskariaren eta eskaintzaren arteko konfiantzaren afera lehentasunezko aldagai bilakatzen da zerbitzuen aukeraketa egitean. Merkatuak alor horretan akatsak egiten dituenek, eta zerbitzu publikoek ez dutenez behar besteko irismenik agertzen, elkarteen mozkinenez besteko izaera agertzen da konfiantzari loturiko funtsezko elementu gisa.

Jarraian, ikuspegi neoklasikoa garatu duten teoria eta autore nagusiak biltzen dituen taula garatuko dugu, teoria eta autore nagusiek baliatutako argudio-ildoak laburbiltzen dituen.

---

19 Laville (2015). Gertutasunezko zerbitzuen adierak lotura zuzena du "Enplegu Habia Berrien" ideiarekin, eta pertsonen eguneroko bizitzarekin zerikusi zuzena duten eta presentzialki zein emozionalki gertutasuna eskatzen duten zerbitzu multzoari erreferentzia egiten dio. Zerbitzu horien artean leudeke zaintza lanak (etxez etxeko arreta, haurtzaindegiak...), bizitza kalitatea hobetzen dutenak (etxebizitza, garraioa, espazio publikoak eta komertzio txikiak), aisialdi eta kultur zerbitzuak, eta ingurumenari loturikoak (hondakinen kudeaketa, uraren eta energiaren kudeaketa, landa-guneen mantenua, kutsaduraren kontrola, etab.).

4. taula: Hirugarren sektorearen erreferentziako autore eta ekarpenak

| Ikuspegia: galdera nagusia                                                                                                                                                 | Gauzatze akatsa                                              | Teoria/autorea                                              | Hirugarren sektoreak konponduriko akatsak                                                                |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Eskariaren ikuspegia:</b><br>Galdera nagusia:<br>Kontsumitzaileek zergatik jotzen dute hirugarren sektoreko erakundeetara beren beharrianak modu arrazionalen asetzeko? | <b>Estatu akatsen teoriak</b>                                | Estatuko akatsen teoria (Weisbord, 1988)                    | Ondasun publikoen esleipen ez eraginkorrak, "tarteko hauteslearen" preferentziei lehentasuna ematearren  |
|                                                                                                                                                                            |                                                              | Eskariaren heterogeneotasunaren teoria (James, 1987)        | Gutxiengo etniko eta erlijiosoen eskariak ase ezina                                                      |
|                                                                                                                                                                            | <b>Merkatu akatsen teoriak</b> (lehia ez perfektuko egoerak) | Kontratu akatsen teoria (Hansman, 1980)                     | Informazio asimetrien ondorioz, merkatu esleipen desegokia: kontsumitzaileen informazio ez osoko egoera  |
|                                                                                                                                                                            |                                                              | Kontsumitzaileen kontrolaren teoria (Ben-Ner eta Gui, 1993) | Zerbitzuen kalitate galera, eragile interesdunen ( <i>stakeholders</i> ) esku-hartze ezintasunagatik     |
|                                                                                                                                                                            |                                                              | Transakzio kostuen teoria Krashinsky (1986)                 | Zerbitzuen hornikuntzan sorturiko kostuak, onuradunaren inguruko informazio falta medio                  |
| <b>Eskaintzaren ikuspegia</b><br>Galdera nagusia:<br>Zein da hirugarren sektoreko erakunde bat abian jartzeko motibazioa?<br><br><i>If not for profit, for what?</i>       | <b>Ikuspegia</b>                                             | <b>Teoria/autoreak</b>                                      | <b>Argudio lerroa</b>                                                                                    |
|                                                                                                                                                                            | Enpresariala                                                 | Young (1983)                                                | Hirugarren sektoreko logikak enpresa-irizpideen arabera uler litezke                                     |
|                                                                                                                                                                            |                                                              | Steinberg (2006)                                            | Enpresa-irizpideetan txertatu beharreko bi premisa: ekintzaileen motibazioak eta arrakastarako faktoreak |
| Gizarte-mugimenduak                                                                                                                                                        | James (1987)                                                 | Gizarte-ekintzaileen pizgarrien analisia                    |                                                                                                          |

Iturria: geuk moldatua, Etxezarreta (2012)tik abiatuz.

Orokorrean, eskariaren ikuspegitik, hirugarren sektorearen existentziaren justifikazioa gainerako bi sektore instituzionalen (publikoa eta pribatu-kapitalista) "gauzatze-akatsen" bitartez azaltzen da, merkatuak zenbait ondasun eta zerbitzu modu egokian eskaintzen asmatzen ez duelako edo estatuak ondasun kolektiboak bere hautesleriaren desiren arabera esleitzen dituelako.

Hirugarren sektoreko erakundeek, ildo horretatik, akats horiek zuzentzeko mekanismo propioak leuzkakete, printzipioz mozkin asmodun enpresei egozten ez zaizkien abantaila batzuekin jokatuz. Nagusiki hiru lirateke abantaila horiek:

- Mozkinen banaezintasuna, portaera ez-desiragarriak ekiditeko aseguru gisa balio dezakeena.
- Elkarren laguntzako logika, jardueraren onuradunak erakundeko partaideak diren neurrian portaera ez-desiragarri horiek ekiditeko kontrol are handiagoa legoke<sup>20</sup>.
- Borondatezko izaera, partaideen borondatezko inplikazioaren bitartez eta erabiltzaileek erakundearekiko agertzen duten borondatezko engaiamenduaren ondorioz.

Laburbilduz, beraz, teoria horiek guztiak, sarri askotan, "Hautu Instituzionalen" teoria gisa deituak izan dira, funtsean azaldu nahi dutelako zer zirkunstantziak eramaten dituzten pertsonak elkarteen aldeko hautua egitera, dela eskariaren ikuspegitik, dela eskaintzarenetik. Metodologikoki, hortaz, "aukeraketa arrazionalaren" prismatik begiratu zaio errealitate horri, aldagai azaltzaile nagusi gisa. Eta aukeraketa-zerbitzuen artean bat gailentzen da besteen gainetik: mozkinen besteko izaera, hain zuzen ere.

Aipaturiko hori izanik ere Hirugarren Sektorearen ikuspegi klasikoa, ezin aipatu gabe utzi Lester Salamon autorearen ekarria ikuspegi honetan. Autore honek berebiziko lana egin du hirugarren sektorea aztertzeke nazioarteko egitasmo alderatuen bitartez, eta bi dira, gure iritzian, autore honek *corpus* teoriko iparramerikarrari eginiko hobekuntzak: alde batetik, hirugarren sektorearen ikuspegi europarrago bat ere eskaini izana, ekonomia sozialeko erakundeen logikarekin bat egin dezaketen kontsentsuzko definizioak proposatuz<sup>21</sup>; eta, bestetik, ikuspegi neoklasikoaren zenbait paradigma auzitan jarri, eta fenomenoaren azalpenerako begiratu soziologikoagoa proposatu izana. Salamonek, lehenik, zalantzan jarriko du hirugarren sektorearen izaera subsidiarioa, eta sektore ezberdinen arteko beharrezko elkarlanaren ideia proposatuko du, hirugarren sektoreak ere agertzen dituelako bere gauzatze akatsak (*voluntary failures*). Bestalde, hirugarren sektoreko erakundeen sorrera arrazoiak ez ditu bilatuko "hautespene arrazionalaren" interpretazio markoa baliatuz, baizik eta horien gizarte-jatorrien analisiaren bitartez<sup>22</sup>.

Lehen teoria horien garapen enpiriko eta berrikusketa kritiko ugaria plazaratu izan da geroztik, eta denak jasotzea ezinezkoa izan arren, Lavilleren analiziaz baliatuko gara Hirugarren Sektorearen teoriaren alderdi kritikoak nolabait ordenatzeko<sup>23</sup>:

- Lehen kritika analisi formalistaren balio gabeziaren ildotik letorke. Esan bezala, "aukeraketa arrazionalaren" prisma honek ez du fenomenoaren jatorri historiko eta baldintzapen sozialak aztertzeke balio, eta, beraz, ez da fenomenoaren dimentsio instituzionala hautemateko gai.
- Bigarren kritika-ildo bat litzateke hirugarren sektoreari aitortzen zaion izaera subsidiarioaren ingurukoa. Teoria horien arabera, hirugarren sektorea beste bi sektoreen gauzatze akatsen ondorio gisa aurkezten da, eta aurre-premisa hori ikusi da hainbat eta hainbat lan enpirikoren bitartez, ezin dela frogatutzat eman, besteak beste, hirugarren sektoreak ere badituelako bere gauzatze akats propioak. Funtsean, ikuspegi sektorialarena da hutsa, errealitate ekonomikoa hiru sektoretan bereizteke abstrakzio lanak ez baitu kontuan hartzen elkartegintza, sarri askotan, sektore ezberdinen arteko bitartekaritza esparru bat dela, non bat egin dezaketen helburu publikoek, jarduera pribatuek eta kontrol sozialak.

20 Salamon eta Anheier (1997) ildo teoriko honen baitan kokatzen dute, orobat, Ben-Ner eta Guik (1993) eginiko ekarpena. Egile horiek, Hansmannen kontratu-akatsen abiapuntua partekatuz, hirugarren sektoreko erakundeen egokitasuna ez dute mozkinen besteko izaeran kausitzen, baizik eta erakunde horien gobernu-organoei duten *stakeholder* osaeran. Egile horiek irudiko, erakunde horiek ekoizturiko eta banaturiko zerbitzuen gainera kontrola eragile interesdun anitzaren kontrolpean egoteak informazio asimetria leundu dezake, kasuren batean ekoizlea eta onuraduna pertsona bera izan baitaitezke (autolaguntzako edo mutualitate elkarreetan, kasu). Interesen partekatze horrek zerbitzuen kalitate galeran jausteko arriskua ekiditen du.

21 Salamon eta Sokolowski (2016).

22 Salamon eta Anheier (1997).

23 Laville (2015).



- Hirugarren kritika-ildoak teoria horien kutsu etnozentrismoaren inguruan oinarritzen da. Ekonomia neoklasikoaren ikuspegi hipotetiko-deduktiboak irismen unibertsaleko legeak proposatzea izan ohi du xede, baina ustezko unibertsaltasun horren azpian mundu ikuskera iparramerikarra da inposatu nahi dena. Hirugarren sektoreari loturiko erakundeek ezaugarriak AEBetako elkartegintzarenak dira, eta, beraz, nekez balio dezakete bestelako errealitateetarako baliagarriak diren premisak ezartzeko. Jarraian aurkeztuko ditugun beste bi ikuspegi analitikoak erronketako bat ildo horri ere dagokio, errealitate europar edo hegoamerikarrera hobeto doitu den analisi ereduak proposatzeko helburuz.

#### Aurreiritzia deseraikiz (1):

##### Mozkin asmoagatik ez bada, zergatik da, ba? (If not for profit, for what?)

Eztabaida interesgarria izan da azken urteetan maila akademikoan, mozkinen besteko izaeraren inguruan. Noiz da ekimen bat mozkin asmorik gabea eta noiz mozkin asmoduna? Mozkin asmorik ez izateak esan nahi al du erakundeok praktikan mozkin izaten ez dutela? Eta mozkin asmodun erakunde guztiek logika bera al dute mozkin horiek banatzeko orduan? Elkarrizketa interesgarria gertatu da hemen Hirugarren Sektorea eta Ekonomia Soziala zein Enpresa Soziala bezalako adieraren artean, eta logiken arteko bat-egite esparruak identifikatu ere egin dira, hainbeste, ezen zenbaitzuk Third Social Economy Sector bezalako adierak ere bataiatu baitituzte azkenaldion (Salamon eta Sokolowski, 2016).

Printzipioz, enpresa pribatu kapitalistei mozkin asmoa auresuposatzen zaie, eta hirugarren sektore zein erakunde publikoei mozkin asmorik eza. Errealitatea, ordea, askoz konplexuagoa da. Badira enpresa pribatuak, jabe egoitza kapitalistatik izan gabe, merkatuan lehiatu eta mozkinak eskuratzen dituztenak (esaterako, kooperatibak). Mozkin asmorik gabeko erakunde gehienek, halaber, mozkin izaten dituzte sarri askotan. Elementu bereizgarria, azken horien kasuan, ez da beren jardueraren bitartez mozkin ez sortzea, mozkin horiek banatu ezina baizik. Horrela, Hirugarren Sektorea, mozkinen besteko erakundeetan gorpuztua, bereizi izan da mozkin asmodun enpresetatik, bere jardueragatik sorturiko mozkinak inbertitzaile, administratzaile edo parte interesatuei banatzeko debekuegatik, azken ezaugarri honek bestelako interes publiko baten preskizian jardutea auresuposatzen baitie.

Hemen, ordea, guztiz pertinentea den ñabardura linguistiko batek bestelako begiratu bat eskaintzen digu. Ingelesek bereizi egiten dituzte nonprofit eta not for profit adierak. Lehenak barne-antolaketako aferei egiten die erreferentzia, mozkinak banatzeko debekua ezarri. Bigarrenak, aldiz, erakundeek misioari edo helburuari erreparatu dio, zenbait erakunderen leitmotibea mozkinak sortzea ez dela aditzera emanez. Tradizio kooperatiboaren esentziarekin bat egiten du azken adiera horrek, helburu behinena kalitatezko enplegua sortu eta mantentzea izan baita, lehenik; eta komunitatearen garapenean eragitea, bigarrenik. Enpresa sozialak proposamenak ere prisma horri heltzen dio, enpresa mota horiek helburu sozial bat oinarri dutela uste baita, ez mozkin asmoa.

Hirugarren sektorearen adiera errealitate europarrera egokitu nahi izan da azken urteotan, Europar Batasunak finantzaturiko Third Sector Impact (TSI) Project izan delarik azken urteotako egitasmo erraldoi nagusia, John Hopkins unibertsitate bideraturiko egitasmoari jarraipena emanez. Proiektu honen helburuetako bat Hirugarren sektorea birkontzeptualizatzea izan da, eta ariketa honen emaitza nagusia hauxe izan da: mozkinen besteko erakundeek harago (beyond nonprofits) badirela, gutxienik, barneratu beharko liratekeen beste hiru tipologia-mota: kooperatibak eta mutualitatea, lehenik; enpresa sozialak, bigarrenik; eta norbanako boluntarioak, azkenik. Kooperatiben, eta hedaturaz, ekonomia sozialaren logika barnebiltzeko, mozkinen banaketaren baldintza laxatzea izan da modua, mozkinen banaezintasuna ezarri beharrean, mozkinen banaketa "mugatua" hobetsi baita elementu bereizgarri bezala.

## 3.2. Ikuspegi juridikoa: Ekonomia Sozialaren kontzeptua

Ekonomia sozialaren ikuspegiak jatorri europarra du, nagusiki herrialde frankofonoetan kokatua. Kooperatibismoaren eta mutualismoaren iturri zaharretik edaten duenez, "Hirugarren Sektorearen" ikuspegi analitikoak baino esparru zabalagoa hartzen du kontuan, errealitate europarrean kooperatibismoak duen garrantziari hobeto erantzunez.

Aztergai duen errealitatea mugatzeko, "mozkinen banaezintasun" printzipioa onartu beharrean, "mozkinen banaketa mugatuaren" ikuspegia hobesten du ikuspegi honek. Ildo horretatik, gizarte-ekonomiak ikertzen dituen erakunde motak (kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak, nagusiki) ez dira mozkin asmorik gabekoak izateagatik bereizten, horien jarduerak sorturiko mozkinen eskuratze pribatuari mugak ezartzeagatik baizik. Muga horiek erakunde horien jabego kolektiboaren ondorio dira, bai eta jabego-eredu horrek ezartzen dituen kudeaketa-eredu demokratikoen esperotako emaitza ere.

Aztergaiaren zedarritze ezberdina egiteaz batera, analisirako ikuspegiak ere oso bestelakoak dira. Anlisi ikuspegi honen berrikuspen historikoa egin duten autore gehienek onartzen dute biratze estrategiko garrantzitsu bat gertatu zela XIX. mendearen amaieran. Horrenbestez, XIX. mende hastapenetako mugimendu kooperatiboaren analisisan nabarmenduriko "gizarte-ekonomialariek" fenomenoaren ikuspegi makroekonomikoa garatu zuten, gizarte-ekonomia ekonomia politikoaren adar propio gisa teorizatuz. XIX. mendearen amaieran, ordea, ikusmira aldatu egingo da, errealitate hau sektore berezitu gisa hautematen hasteko, ez publiko eta ez kapitalista diren erakundeek osaturiko sektore gisa, eta, ondorioz, ikuspegi analitikoa erakunde mota horien ezberdintasun normatiboen inguruan zentratuko da.

Jarraian erasten dugun taulan, ikuspegi teoriko honen autore eta ekarpen nagusiak laburbiltzen saiatuko gara.

| 5. taula: Ekonomia sozialaren erreferentziako autoreak eta ekarpenak                        |                         |                                                                                                                                                                                                             |
|---------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Ikuspegia                                                                                   | Autoreak                | Ekarpenak                                                                                                                                                                                                   |
| <b>Makroekonomikoa: ekonomia politikoaren adarra</b> (korrante marginalistarekiko kritikoa) | Dunoyer (1830)          | <i>Nouveau traité d'économie sociale</i>                                                                                                                                                                    |
|                                                                                             | Ott (1851)              | <i>Traité d'économie sociale</i>                                                                                                                                                                            |
|                                                                                             | Le Play (1856)          | <i>Société Internationale des Études Pratiques d'Économie Sociale</i> elkartearen eta <i>Revue d'Économie Sociale</i> aldizkariaren bultzatzailea                                                           |
|                                                                                             | Gide (1904)             | <i>Les Sociétés Coopératives de Consommation</i> obran, Gizarte-ekonomia "gizarte-justiziaren zientzia" gisa definitzen du                                                                                  |
|                                                                                             | Walras(1896)            | <i>Études d'économie sociale</i> eta <i>Les associations populaires coopératives</i> obretan, ekonomia soziala "aberastasunaren banaketaren zientzia" gisa definitzen du                                    |
| <b>Sektoriala: erakunde ez publiko ez kapitalisten analisia</b>                             | Desroche (1983)         | Sektorea osatzen duten eragileen definizioa ezarri zuen: <i>Comité national de liaison des activités coopératives, mutuelles et associatives</i> elkargoak onarturiko <i>Charte de l'économie sociale</i> ) |
|                                                                                             | Vienney (1994)          | Erakundeen jarduera-arauen ezarpena                                                                                                                                                                         |
|                                                                                             | Defourny (1990)         | Erakundeen jarduera-arauen ezarpena ( <i>Conseil Wallon de l'Économie Socialek</i> beregain hartu zuena)                                                                                                    |
|                                                                                             | Barea eta Monzón (1992) | " <i>La Economía Social en España</i> "                                                                                                                                                                     |

Iturria: Geuk laburtua, Etxezarreta (2012) oinarrituz.

XX. mendearen amaierarako, hortaz, ekonomia sozialaren hurbilketa teorikoa ikuspegi juridiko eta normatibo batetik egin da, ez publiko eta ez kapitalista diren erakundeen identifikazio, saretze eta sendotze

bide batean. Ikuspegi juridikoak ekonomia sozialeko erakundeen tipologia konkretuak egitea errazten du. Ikuspegi normatiboak, jarduera arauen ezarpenak, alegia, aurrekoa osatzen du: ekonomia soziala ez da, beraz, figura juridiko konkretuetara egokitzen diren erakunde multzoa soilik, baizik eta baita jarduera-printzipio bereizgarri batzuk ziurtatzen dituen erakunde multzoa ere (ikus aurreko atalean zehazturiko figura juridikoak eta printzipioak).

Ikuspegi analitiko honetan oinarrituz, ekonomia sozialak onarpen eta garapen instituzional garrantzitsua bizi izan du azken 30 urteotan, Europar Batasuneko estatuz gaindiko erakunde zein herrialde ugarritan. Monzón<sup>24</sup> eskaintzen digun talaiatik so eginda, esan liteke ekonomia sozialak aurrerabide sendoak egin dituela azken 30 urteotan barne-antolaketa mailan, onarpen instituzionalari dagokionez, zein garapen akademikoan. Barne-antolaketa mailan, nabarmentzekoa da Europar Batzordeko *Social Economy Europe* sektorearen ordezkaritza organo nagusienaren sorrera 2000. urtean. Onarpen instituzionalean, aipagarriak dira Europar Batasuneko herrialde ugarritan azken urteetan onartuak izan diren lege espezifikoak, Espainian lehena 2011. urtean, eta, horren atzetik, Portugalekoa, 2013an; Frantziakoa, 2014an; Errumaniakoa, 2015ean; edo Greziakoa, 2016an. Lege horiek guztiek gorpuzten dute ondoen ekonomia sozialaren ikuspegi analitikoa, sektore hau identifikatu eta erregulatu ahal izateko figura juridikoen katalogo bat eta jarduera arauen zerrenda bat ezartzen baitute.

Legegintza eta antolakuntza aurrerapen horiek guztiak garapen akademiko paralelo baten eskutik etorri dira. CIRIEC, *International Centre of Research and Information on the Public, Social and Cooperative Economy*, erakundearen sorrerak 1986an bultzatu eta bideratu du gerora ekonomia sozialaren *corpus* teorikoa, eta honen ekarpen nagusien artean legoke ekonomia soziala Nazio Kontabilitateko irizpideekin bateragarria den metodologia baten bitartez egituratu izana, arestian aipaturiko kontu sateliteen diseinuaren bitartez. Garapen teorikoari dagokionez, beraz, sektorearen zedarritzea eta kuantifikazioa izan dira ikuspegi honen lan-ildo nagusiak, baita beronen sustapenerako politika publikoen analisia ere<sup>25</sup>.

Lavilleren irudiko<sup>26</sup>, ekonomia sozialaren ekarpena eztabaida ezina da, beraz, Hirugarren Sektorearen ikuspegiak ezarritakoarekin alderatuz. Lehenik, errealitate anitzago eta zabalago bat barnebiltzeko gai da, mozkinen besteko erakundeetatik harago doana eta errealitate europarrari hobeto doitzen zaiona. Bigarrenik, errealitate zabalago hori egituratzen eta sendotzen lagundu du, sektorearen gaineko analisisien bitartez eta sektoreari bideraturiko politika publikoak sustatuz eta diseinatuz. Analisisaren ikuspegitik, azkenik, konfiantzazko harremanen ezarpena mozkinen besteko izaeratik harago doala frogatu du, bestelako elementuei zentraltasuna emanez: jabego kolektiboa, kudeaketa demokratikoa eta etekinen banaketa bidezkoa.

Nolanahi ere, Lavillek ekonomia sozialaren ikuspegi kritikoa ere jorratzen du, hain zuzen ere, ekonomia solidarioaren ekarpenaren jatorrian dagoena. Egile honen irudiko, ekonomia sozialaren ikuspegi analitikoak bi ahulgune nagusi ditu:

- Ekonomiarekiko harremanari dagokionez, arinkeriarako joera antzematen dio, ez baitzaio sakonean heldu nahi ekonomia sozialaren bilakaeran mundu zabalean ageri den funtsezko arazo bati: erretorika eta praktika errealean arteko amildegi geroz eta handiagoari. Ekonomia sozialean, enpresa kudeaketari loturiko problematikak elkartegintzari loturiko problematiken gainera jarriak izan direla hautematen da han eta hemen. Teknoegituren gainezarpenera, deskooperatibizatzeko eta desmutualizatze prozesuak, kooperatiba faltsuak, parte-hartze arazoak... Ugariak dira antzemandako gaitzak, denak ere "isomorfismo" prozesuen ondorioz, hots, erakundeen ingurune logika hegemonikoei (izan merkatuko, izan estatuko) men egitera pasatuz. "Demokraziaren burdinazko lege" gisa ere definituta izan da prozesu hau: demokraziak ez du zentzurik erakunderik gabe, baina erakundeak berak ahultzen du demokrazia. Oso interesgarriak eta kontuan hartzekoak iruditzen zaizkigu, ildo honetan, Euskal Herrian Arrasateko mugimendu kooperatiboaren bueltan eginiko ekarpen kritikoa (ikus Koadroa).

---

24 Monzón (2016).

25 Azken urteotan gehiago jorratzen ari dira gizarte-erantzukizuna eta gizarte-inpaktua bezalako gaiak, ziur aski ekonomia sozialari Europar Batasunaren mailan agertu zaizkion bi lehiakide berrien harira, "Enpresen Gizarte Erantzukizuna" eta "Enpresa Sozialak" bultzatzen bideraturiko politika komunitarioak direla medio. Analisis interesgarria, ildo honetan, Monzón (2016) egiten duena da.

26 Laville (2015).

- Politikarekiko harremanari dagokionez, berriz, ekonomia sozialaren dimentsio politikoa ere sano ahulduta ageri zaigu, bai erakundeen barne-mailan, bai eta ingurunearekiko konpromiso-mailan ere. Barne-mailan, demokrazia eta berdintasuna maila formal batean ziurtatuta izan arren, praktika errealean egikaritzeko mekanismoen eta kontrol neurrian, gabezia edo indargabetzea azpimarratzen da. Kanpora begira, ekonomia sozialaren funtzio eraldatzailearen inguruko ikuspegi estrategiko propioaren gabezia da nabarmentzen dena.

### Aurreiritziak deseraikiz (2):

#### Kooperatibismoa baldin bazen erantzuna, zeintzuk ziren galderak?

Ugariak dira azken urteotan Arrasateko esperientzia kooperatiboaren baitatik sorturiko begiratu kritikoak, "kooperatibismo heldu" baten diagnostiko partekatutik abiatuz, zentzu berrien bilaketan ekarpena egiteko asmoa dutenak (Sarasua eta Udaondo, 2004; Azkarraga, 2007). Bi ale xehatuko ditugu jarraian, ekonomia sozialaren ajeekin lotura zuzenekoak baitira: Fagor Etxetresnak kooperatibaren itxierari lotuta eginiko balio kooperatiboaren diagnostikoa, lehenik; eta kooperatibaren funtzio sozialari buruz eginiko ekarpena, bestetik.

#### Zertan dira balio kooperatiboak?

Lanki ikertegiko Ortega eta Uriartek (2015) proposaturiko analisisian, hauexek lirateke laburbilduz egun kooperatibetan ageri diren balio talka nagusien artean, batzuk:

- Hazkundera eta dimentsioaren inguruko eztabaidak: merkatuan lehiakor izan beharrak eskala ekonomiak behartzen dituen neurri berean, dimentsio handiagotzeak balio kooperatiboaren ahultzea sortzen du.
- Kultura kooperatiboaren transmisio arazoa: kooperatibista langile eta era berean enpresaren jabe denaren kontzientzia galera, eta bestelako profilen areagotzea (profil funtzionariala, sindikalista, teknokrata...).
- Merkatu globalaren eskakizunetara egokitzeko trabak: izaera lehiakorren beharra gutxiestea enpleguaren defentsaren aurrean.
- Gobernantza arazoak: kooperatibaren organo sozialen eta exekutiboaren arteko talkak.
- Elkartasunaren berrikuspen kritikoa, eraginkorrak eta ebaluagarriak izango diren mekanismoen bilaketa.
- Korporazioaren mugak: kooperatibaren integrazio mailaren inguruko kezka.
- Funtzio sozialaren inguruko kezka: kooperatibaren enplegu emaile edo gizarte eraldakuntza prozesuen akuilatzaile izan behar direnaren zalantza.

#### Kooperatibaren funtzio sozialaz

Lanki ikertegiko Loyola eta Ortegak (2014) buruturiko azterketan errepasoa egiten da Arrasateko kooperatibagintzaren gizarte ekarpenaren ildo nagusien gainean (enplegu sorkuntza, aberastasunaren banaketa bidezkoa, hezkuntza-egituren sustapena, euskara eta euskal kultura aldeztzea, bestelako gizarte egitasmoak...) eta baita eginikoaren diagnostiko kritikorako elementu batzuk eman ere. Horien artean nabarmentzen dira, honako hauexek:

- Bizipen pertsonalaren makaltzea, hots, bazkide kooperatibistek bultzaturiko egitasmo sozialetan ageri duten inplikazio pertsonalaren ahultzea.
- Ikuspegi estrategikoaren falta, funtsen derrigorrezko banaketa arauen konplimentuaz gain, gizarte ekintza modu estrategikoan antolatzeke ikusmira falta.
- Bestelako gizarte eragileekin eraldaketa prozesu partekatua harilkatzeko gaitasun galera.
- Lortu asmo den gizarte eredu berriaren inguruko ikuspegi partekatua falta.

Horiek izanik orain arte eginiko praktika ezberdinen balorazioak, gaitasun eraldatzailea biziberritzeko estrategia posibleen inguruko ekarpena ere gehitzen dute, besteak beste, alor hauek kooperatibaren Kudeaketa Planetan eta Plan Estrategikoetan barneratuz, lan batzorde espezifikoa sortuz, bazkideak informatu eta formatzeko mekanismoak ezarri, eta gizarte funtsen kudeaketarako eredu berri bat proposatuz.

### 3.3. Ikuspegi soziologikoa: Ekonomia solidarioaren ekarpenak

Ekonomia solidarioaren proposamenak Hego Amerikan du bere jatorria, iragan mendeko 80ko hamarkadan hasi baitzen zenbait autore kontzeptu berri hau proposatzen, gertatzen ari ziren gizarte-eraldaketa ezberdinen arteko koherentzia bilatzeko asmoz<sup>27</sup>. Wanderleyk<sup>28</sup> aipatzen duenez, eraldaketa prozesu horiek ekonomia informalaren eta ekonomia herritarraren baitan (*economía popular*) kokatzen diren zenbait egitasmoren garapenari loturik datoz. Politika neoliberalen porrotari erantzunez sorturiko gizarte-ekimen berriek<sup>29</sup> beren interpretazio markoa aldatuko dute: garapen kapitalistari jarraitzeko ezintasunaren ondorio gisa ulertuak izatetik, proposamen antikapitalista gisa ulertzen hasiko dira. Garapenaren biktimak izatetik, gizarte-emantzipaziorako tresna izatera. Ekonomia Solidarioaren markoak, hortaz, biziraupeneko ekonomiak izateaz gain, bestelako ekonomia-eredu baten ernamuin gisa interpretatuko ditu ekimenok.

Garai bertsuan agertzen hasiko dira Europan ere bestelako ekimen batzuk, Wanderleyren hitzetan ongizate-estatu europarraren krisi egoera bati erantzunez, eta gertutasunezko elkartasun logika bati lotuak. Lavillek<sup>30</sup> ekonomia sozial klasikoaren haustura gisa interpretatuko ditu ekimen berri horien antolakuntza-logikak, gutxienik hiru elementu bereizgarri biltzen dituztela iritzita: gobernantza-eredu berriak, jarduera politiko indarberritua eta teoria ekonomikoaren inguruko analisi osatuagoa.

Ekonomia sozialaren ikuspegi juridiko edo sektorialaren hersturak gaindituz, beraz, ekonomia solidarioak beste maila akademiko bat<sup>31</sup> edo maximalista bat<sup>32</sup> erantsiko dio analisiari, antolakuntza-eredu alternatibo horiek marko teoriko orokorragoen bidez azaltzeko saioa eginez. Gure iritzian, ekonomia solidarioak hiru dimentsio erantsiko dizkio ekonomia sozialaren analisi-ikuspegiari: lehenik, antolakuntza-ereduari dagokionez, ekonomia solidarioak irizpide juridikoa gainditzen duen prisma hobetsiko du, erakundeon izaera "hibridoan" jarri arreta nagusia; bigarrenik, dimentsio politikoari loturik, ekonomia sozialaren funtzio politikoaren inguruko optika zabalduko du, gizarte-mailako eraldaketa prozesu zabalagoen baitan kokatuz; azkenik, dimentsio teorikoari lotuta, ekonomia solidarioak praktika berri horiek ekonomia sustantibo eta pluralaren interpretazio markoaren pean teorizatuko ditu.

---

27 Luis Razetori aitortzen zaio kontzeptuaren aitatasuna, bere "*Economía de la Solidaridad y Mercado Democrático*" obran kontsideratzen baita agertzen dela lehen aldiz "ekonomia solidarioa" kontzeptu gisa.

28 Wanderley (2016).

29 Autoreak aipatzen ditu, besteak beste, jantoki herrikoiak, ekoizpen eta banaketa kooperatibak, langileen jabegoko enpresak, elkartrukerako sare eta taldeak, ekoizpen ekologikora bideraturiko taldeak, nekazaritza-ekoizpeneko komunitate indigenak, ekimen autokudeatuak, zirkuitu laburreko banaketa sareak...

30 Laville (2015).

31 Draperik (2013) erabiltzen duen adiera da, Ekonomia Solidarioaren definizio politikoaz bereizteko. Bigarren definizio hau, politikoa, autorearen irudiko, oso gertu dago ekonomia sozialaren definiziotik, sektorea kooperatiba, mutualitate eta elkarten estatus juridikoagatik definitua geratzen baita. Definizio akademikoan, aldiz, kokatzen ditu Laville eta Emeren ekarpenak, ekonomia pluralaren ekarpenari lotuta.

32 Wanderleyek (2016) ezartzen duen tipologia interesgarria da hauex, Hego Amerikan ekonomia solidarioaren definizioak dituen hurbilketa minimalista eta maximalista bereizteko: lehena ekintzailtza konkretuen antolaketa-ereduen analisisan zentratzen den bitartean, bigarrenak praktika hauek inspiratzen dituen balio sistemei erreparatzen die.

6. taula: Ekonomia solidarioaren erreferentziako autoreak eta ekarpenak

| Ikuspegia               | Herraldea | Autorea   | Ekarpena                                                                                                                                    |
|-------------------------|-----------|-----------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Hegoamerikarra          | Argentina | Coraggio  | Ekonomia mistotik Lanaren Ekonomian oinarrituko den sistema batera igarotzeko trantsizio bidea da Ekonomia Solidarioa.                      |
|                         |           | Hintze    | Ekonomia solidarioa eta politika publikoak.                                                                                                 |
|                         | Brasil    | Gaiger    | Autokudeaketaren abantailen analisia ekintzaitza eredu kolektiboetan.                                                                       |
|                         |           | Singer    |                                                                                                                                             |
|                         |           | Mance     | Elkartasunezko lankidetzaren sareen analisia. Balio kate solidarioak: kontsumoa, ekoizpena, banaketa eta finantziarioa.                     |
|                         |           | Arruda    | Ekonomia solidarioa garapen eredu integralago (Ekonomia Matristikoa) baten baitan. Hezkuntza herritarraren garrantzia.                      |
|                         |           | Primavera | Ekonomia solidarioa, finantzak eta moneta sozialak.                                                                                         |
|                         | Txile     | Razeto    | C faktorearen proposamena erakundeetan elkartasunaren paradigma ezartzeak sortzen dituen abantailen analisirako                             |
| Europarra (frankofonia) | Frantzia  | Laville   | Ekonomia pluralaren ekarpena. Bilakaera historikoaren analisia. Dimentsio politikoaren berrindartzea elkartegintzaren tradizioan txertatuz. |
|                         | Belgika   | Defourny  | Enpresa soziala kontzeptuaren proposamena ekonomia solidarioaren ekintzaitza moduak aztertzeko. Gobernantza eredu hibridoaren analisia.     |
|                         |           | Nyssens   |                                                                                                                                             |
|                         | Quebec    | Levesque  | Beharrianetik eta helburuetatik sorturiko ekonomia solidarioa.                                                                              |
|                         |           | Favreau   | Elkartegintzaren garrantzia. Erakunde hibridoaren analisia.                                                                                 |
|                         |           | Mendell   | Polanyiren obraren analisia. Ekonomia pluralaren ekarpena.                                                                                  |

Iturria: Geuk laburtua, Perez de Mendiguren (2014) oinarrituz.

Lan honetan dimentsio teorikoari erreparatu nahi diogunez, esan genezake ekonomia solidarioaren ikuspegi analitikoak soziologia ekonomikoaren esparruan kokatzen dela nagusiki. Lavillek "historiak elikaturiko soziologia ekonomikoaren" egokitasuna aldarrikatu du, fenomeno bere osotasunean aztertu ahal izateko<sup>33</sup>. Analisi marko horiek garatzeko, XX. mendeko merkatu-ekonomiaren kritikan erreferentziako

33 Laville eta García-Jané (2009).

bi autoreren lanetatik abiatuko dira: Karl Polanyi eta Marcel Maussen lanetatik, hain zuzen ere<sup>34</sup>. Nolabait laburbildu ahal balitz egileon ekarpena, esan genezake ekonomia solidarioak beretzat hartzen duen ondare teoriko nagusia honetan datzala: ekonomiaren izaera pluralaren ideian, hain zuzen ere. Pluraltasunaren ideiak aditzera ematen duena da, merkatu-logikaz gain, jarduera ekonomikoak bestelako logika ezberdinen pean ere gertatzen direla.

Merkatu-ekonomietan gailentzen den elkartruke-logikaz gain, bestelako logika horiek nagusiki hiru logikaren menpe gertatzen dira: birbanaketa, elkarrekikotasuna eta biziraupena (ikus Koadroa). Logika ezberdin horien konstatazioak balio du, alde batetik, fenomenoaren ikuspegi historiko integralagoa eskaintzeko; bigarrenik, garapen teorikoari dagokionez, ekonomiaren hurbilketa formalista arbuaiatu eta ikuspegi sustantiboa mamitzeko; eta, azkenik, erakundeen antolakuntza-logiketan hibridazioaren kontzeptua lantzeko. Goazen banan-banan.

### Aurreiritziak deseraikiz (3):

#### Ba al da ekonomiarik merkatutik kanpo?

Ekonomia merkatu-ekonomiarekin berdintzen duen ikuspegi mugatu honen aurrean, ekonomia solidarioak ekonomiaren ikuspegi hedatuagoa izateko lau jarduera-poloren bereizketa proposatzen dute, Polanyiaren (1944) hiru printzipio ekonomikoetan babesar hartuta:

- **Merkatuko ekonomia:** esparru honetan ondasun eta zerbitzuen ekoizpenak eta banaketak interes materialei erantzuten diete, eta horien elkartrukea merkatuaren bitartez bideratzen da, eskaria eta eskaintza adostasuneko orekara eramaten dituen prezio jakin batean. Esparru honetan, helburu nagusia mozkinen bilaketa izan ohi da, eta giza harremanak arrazionaltasun instrumentalaren bitartez gertatu ohi dira. Eskariaren eta eskaintzaren arteko erlazioa kontratu bidez finkatzen da, eta, hortaz, prozesu ekonomikoak modu autonomoan gertatzen dira, esan nahi baita, bestelako giza erlazioekin loturarik izan gabe.
- **Ez-merkatuko ekonomia:** ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta banaketa estatuak gobernaturiko prozesu eta antolakundearen esku geratzen den esparrua litzateke honakoa. Esparru honetan, helburua hiritarren ongizatea eta gizarte-kohesioa bermatzea izan ohi da, eta birbanaketa printzipioa da nagusi, eskubide indibidualen jabe diren norbanakoen mesedetan eraturiko gizarte-segurantza, ongizate edota gizarte-larrialdietarako asistentzia sistemen bitartez. Birbanaketa prozesu horiek sektore publikoaren bitartez gauzatzen dira eskuarki, zeinak kontrol demokratikoaren pean jokatzen duen.
- **Ez-monetazko ekonomia:** ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta banaketa elkarrekikotasun printzipioaren menpe daude. Elkarrekikotasuna pertsona zein gizataldeen artean elkarren onurarako ezartzen diren erlazioen bitartez gertatzen da, baldin eta gizatalde horiek erlazio horiek sortzeko esparruetan parte hartzeko erabakia hartzen badute. Ez-monetazko ekonomia oinarritzeko ekintza ekonomikoen forma bat da, eta "dohainaren" (ingelesezko gift edo gaztelaniazko don) gizarte-ekintzan gorpuzten da. Izan ere, dohaina ez da ulertzen altruismoa edota ordainik gabekoa izatearen zentzuan. Dohaina jasotzen duenak nola-halako askatasuna du, ez baitago berez dohaina itzularaztera behartuko duen kanpo-indarririk. Hala ere, dohaintza-harremanak beti ezartzen dira trukean zerbait jasotzeko eskubidea irabaztearen zentzuan. Hortaz, elkarrekikotasunak ez du zerikusirik merkatuko elkartrukeekin, giza harremanei eta botere-harremanei hertsiki loturik azaltzen baita, ez eta birbanaketazko elkartrukeekin ere, ez baitago inolako kanpo-botere betearazle zentralik.
- **Biziraupen ekonomia:** ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta banaketa etxeguneen baitan gertatzen dira, etxeko lanen esparruan, hain zuzen ere. Gizabanakoen arteko erlazio hori nagusiki senidetetasun harremanen testuinguruan gertatzen da, eta helburu nagusi gisa familia gizataldearen biziraupena edo iraunkortasuna bermatzea da. Esparru honetan, birbanaketa eta elkarrekikotasun harremanek presentzia izan ohi duten arren, ez da hertsiki logika horietan zertan gertatu, eta bortxazko zein izaera autoritarioko harremanen bidez ere gerta litezke.

34 Adierazi behar litzateke bi autore horien lanak erreferentziazkoak jo arren, ekonomia solidarioko autore gehienak tradizio marxistako autore gisa aurkezten direla, beren analisi-ikuspegia lanaren zentraltasunean kapitalismoarekiko alternatiboak izango diren ekoizpen eta banaketa ereduaren bilaketan oinarritzen baita. Bestelako inspirazio iturrien artean, Paulo Freireren "Askapenaren pedagogia" eta "Hezkuntza herritarraren" ideiak nabarmendu izan dira.

Ekonomia solidarioak, ikuspegi historikoa garatzeko, Polanyik proposaturiko "mugimendu bikoitzaren" teoria garatzen du. Teoria honen arabera, Polanyik aztertzen duenez, jendarteen bilakaerak izaera pendularra agertzen du, honako hipotesia proposatuz: gizarteek, beren jarduera ekonomikoan, geroz eta toki handiagoa aitortzen diote merkatu-sistemari, eta, erreazioz, gizarte-babeserako bigarren mugimendu bat sortzen da, dela birbanaketa eta elkarrekikotasun logiken bitartez, dela bestelako logika autoritario edo xenofoboaren bitartez. Lavillek, ikuspegi honetatik abiatuz, ekonomia solidarioaren garapen historikoa mugimendu bikoitz honen baitan aztertzen du, honako irakurketa plazaratuz: ekonomia solidarioaren suspertze aldiek bat egiten dute merkatuko logiken hedatze eta hegemonia epealdiekin (XVIII. mendearen amaiera - XIX. mendearen hastapenak, zein XX. mendearen amaiera), gizarte-babeseranzko mugimendua elkarrekikotasun logiketan artikulatzeko azaltzen duen gaitasunagatik, estatuaren birbanaketa funtzioa ahultzen den aldira.

Pluraltasunaren ideia hartzen du oinarri, era berean, ekonomia solidarioaren garapen teorikoak ere. Diziiplina ekonomikoaren baitan espazio propioa aldarrikatuz, ekonomia solidarioak bere burua Karl Polanyik abiatutako ekonomia sustantiboaren korrontean kokatzen du<sup>35</sup>. Korronte hori ikuspegi formalistaren kritikan zentratzen da, azken horrek defendatu eta modelizatzen baitu mekanikoki eta inolako gizarte esku-hartzerik gabe autoerregulatzen den merkatu-sistemaren utopia. Diziiplina ekonomikoaren baitan posizio hegemonikoa hartzen duen ikuspegi honen kontra (hirugarren sektoreko ekonomialari neoklasikoak bere gain hartzen dutena, besteak beste), ekonomiaren funtsezko definizioa defendatzen da, zeinak ekonomia prozesu instituzionalizatu gisa ulertzen baitu, gizarte eta botere sistemak itxuratua, eta ez horien eraginik gabeko esparru isolatu gisa. Jarduera ekonomikoa gizarte-egitura horien baitan "txertatuz" (*embeddedness*), "behe solairuko" harreman-moduek duten garrantzia azpimarratzen da, nagusiki birbanaketa eta elkarrekikotasun harremanak.

Azkenik, printzipio ekonomikoen pluraltasunaren ikuspegi horrek bere baliagarritasuna agertzen du, orobat, ekonomia solidarioari loturiko ekimen praktikoen gobernantza-ereduak aztertzeko. Italiako kooperatiba sozialen adibidea paradigmaz hartuz, ekonomia solidarioko ekimenak logika ezberdinak hibridatzeko bitarteko esparru gisa teorizatzen dira, gobernantza-eredu horiek ireki egiten baitira kidego mota anitzetara: bazkide-langileak, langile boluntarioak, udal arduradunak, elkartegintzako ordezkariak, etab. Hastapenetan, beraz, "ekonomia sozial berria" gisa deituko diren ekimen hauen elementu bereizgarria eragile eta baliabide ugari mobilizatzeko gaitasunean kokatzen da, eta izaera hibrido horrek dimentsio politiko eta teoriko berria eskaintzen diela irizten zaio.

Ekonomia solidarioaren ikuspegi analitikoa, laburbilduz, ekonomiaren integrazio printzipioen pluraltasunaren ideian oinarritzen da funtsean, zera aditzera emateko: badela ekonomiarik merkatuaz harago, eta badela politikarik estatuaz harago<sup>36</sup>. Ekonomia sozialaren ikuspegiaren mugak gainditzeko asmoarekin garatzen den teoria izanik, ez da harrizkoa ikuspegi horretatik bertatik jasotzea kritika nagusiak.

Draperik<sup>37</sup> azaltzen ditu, argi eta garbi, ekonomia sozialaren aldean, ekonomia solidarioak analisirako agertzen dituen ahultasunak edo arriskuak:

- Lehenik, maila akademikoan ekonomia solidarioaren ekarpena ekonomia sozialaren aurkakotasunean garatu izanak errealitatearekin zerikusirik ez duela argudiatzen du, sektoreko eragileen aldetik nabariagoak baitira egitasmo partekatuak abiarazteko asmoak (horren lekuko, besteak beste, Ekonomia Sozial eta Solidarioa adiera hedatu izana Frantzia).
- Bigarrenik, aztergaia definitzeko ikuspegi juridikoa aintzat hartu ez izanak arriskuak dituela ohartarazten du: alde batetik, ekonomia sozialeko zenbait errealitate bazter uztea ekar dezake (esaterako, nekazaritza-kooperatiba), eta, bestalde, egitura kapitalistadun zenbait esperientzia barneratzea (esaterako, laneratze-munduan diharduten sozietate anonimoak).
- Hirugarrenik, ekonomia solidarioaren teorizazioan funtsezkoa den pluraltasunaren ikuspegia auzitan jartzen du, printzipio kooperatibo behinenekin talka egin dezakeela irizita. Esaterako, pluraltasun hau

---

35 Coraggio (2016).

36 Laville (2015).

37 Draperi (2013).



antolaketa-mailan jatorri anitzeko baliabideen hibridazio gisa teorizatzen dela ikusi dugu, eta horrek bete-betean talka egin dezake autokudeaketaren edo autoeraketaren ideiarekin, besteak beste, mendekotasun egoerak sor baititzake merkatuko zein estatuko baliabideen aurrean.

- Azkenik, ekonomia solidarioak garatzen duen elkartasunaren ideia bera da auzitan jartzen duena, uste baitu arriskua dagoela elkartasuna praktikatzeko, berdintasunik ezarri gabe. Berdintasunik gabeko elkartasuna, asistentzialismoa edo filantropia litzateke. Aitzitik, giza talde ahulenak ahalduntzeak parte-hartze mekanismoak ezartzea esan nahi du, berdinen arteko erakundeak egituratuz eta printzipio demokratiko eta berdintasunezkoak ezarriz.

## Ondorioak

Lan honi amaiera emateko, laburpen taula batean bilduko ditugu jorraturiko hiru ikuspegi analitiko nagusien ezaugarri nagusiak. Taulan ikus litekeen moduan, hiru ikuspegiak ñabardura garrantzitsuak agertzen dituzte, zeri behatzen dioten eta nola behatzen dioten erreparatzen badiogu. Bakoitzak, bistan da, kokatzen den errealitatean nagusi den egoera ekonomikoari zor dio bere begiratua. Alabaina, era berean, behatzeko moduak zerikusi handia du hurbilketa ideologiko ezberdinekin ere, eta horietako bakoitzak ekonomia sozialari aitortzen dion eginkizun ekonomiko eta politikoarekin. Balio beza, hortaz, sarrera-lan honek eztabaidaren nondik norakoak argitzen laguntzeko eta irakurleari apetitua irekitzeko, bideren batean edo bestean sakontzen jarraitzeko, orientazio ariketa gisa.

7. taula: Ikuspegi analitikoaren laburpen taula

|                                    | Hirugarren sektorea                                                                                                            | Ekonomia soziala                                                                                                                    | Ekonomia solidarioa                                                                                                                                                                          |
|------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Jatorria                           | Anglosaxoia<br>(Ipar Amerika)                                                                                                  | Frankofonia                                                                                                                         | Hego Amerika                                                                                                                                                                                 |
| Diziplina akademiko nagusia        | Ekonomia neoklasikoa                                                                                                           | Ikuspegi juridikoa                                                                                                                  | Soziologia ekonomikoa                                                                                                                                                                        |
| Aztergai den erakunde tipo nagusia | Elkartea                                                                                                                       | Kooperatiba,<br>mutualitatea eta elkartea                                                                                           | Ekonomia herritarra /<br>"Ekonomia sozial berria"                                                                                                                                            |
| Printzipio bereizgarri nagusiak    | - Mozkinen besteko izaera<br>- Izaera boluntarioa<br>- Autogobernatua (pribatua)                                               | - Jabego kolektiboa<br>- Izaera demokratikoa<br>- Bazkideen interesa eta interes orokorra bateratzea<br>- Mozkinen banaketa mugatua | - Gobernantza-eredu plurala<br>- Jarduera politiko indarberritua<br>- Teoria ekonomikoaren analisi osatuagoa                                                                                 |
| Aldagai azaltzaileak               | Gauzatze akatsen teoriak: merkatu eta estatu akatsen erantzuna                                                                 | Bi ikuspegi: makroekonomikoa (ekonomia politikoa) eta mikroekonomikoa (sektore ez pribatu ez publikoa)                              | Ekonomia sustantiboa (gizarte-egituretan txertatua) eta ekonomia plurala (birbanaketa, elkarrekikotasuna, biziraupena)                                                                       |
| Azterketa mota nagusiak            | Nazioarteko alderaketak/ Nazio Kontabilitate Sistemak                                                                          | Nazioarteko alderaketak/ Nazio Kontabilitate Sistemak / Politika publikoak                                                          | Bilakaera historikoa / Gerturatze sustantiboa                                                                                                                                                |
| Ekarpen nagusiak                   | - Sektorea zedarritu eta neurtzeko doitasuna<br>- Legitimazioa "hautespen arrazionalen" bidez argudiatu (eredu formalista)     | - Sektorea zedarritu eta neurtzeko doitasuna<br>- Politika publikoen sustapenerako akuilu                                           | - Interpelazio politikorako gaitasuna<br>- Teoria ekonomiko alternatibo baterako oinarriak<br>- Politika publikoen sustapenerako akuilua                                                     |
| Aspektu kritikoak                  | - Analisi formalistaren gaitasun azaltzaile apala<br>- Izaera subsidiarioaren aurre-premisa faltsua<br>- Begirada etnozentrkoa | - Erretorika eta praktikaren arteko egokitze falta<br>- Engaiamendu politikoaren ahultzea                                           | - Ikuspegi akademikoegia<br>- Ikuspegi juridikorik ez aintzatestearren arriskuak<br>- Hibridazioaren eta autokudeaketaren arteko talka<br>- Elkartasuna asistentzialismoan jausteko arriskua |

Iturria: geuk egina.

## Bibliografia

Artis, A. eta Demoustier, D. (2013): *Économie Sociale : penser l'économie autrement*, in Hiez, D. eta Lavillunière, E. (zuz) *Vers une théorie de l'économie sociale et solidaire*, 33-55, Collection: Droit & économie sociale et solidaire, Larcier, Paris.

- AZKARRAGA, J. (2007). Mondragon ante la globalización: la cultura cooperativa vasca ante el cambio de época. *Cuadernos de LANKI*, 2, Eskoriatza.
- BEN-NER, A. eta GUI, B. (ed.) (1993): *The Nonprofit Sector in the Mixed Economy*, Ann Arbor, MI: University of Michigan Press.
- CORAGGIO (2016): La economía social y solidaria (ESS): niveles y alcances de acción de sus actores. El papel de las universidades, in Puig, C. (koord.). *Economía Social y Solidaria: conceptos, prácticas y políticas públicas*, Hegoa, Bilbo. [http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/300/ESS\\_Conceptos,\\_practicas\\_y\\_politicas\\_publicas.pdf?1488539889](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/300/ESS_Conceptos,_practicas_y_politicas_publicas.pdf?1488539889)
- DIMAGGIO, P.J. eta POWELL, W.W. (1983): The iron cage revisited: Institutional isomorphism and collective rationality in organizational fields. *American sociological review*, 147-160.
- DRAPERI, J.F. (2013): Économie sociale, économie solidaire, entrepreneuriat social. Des projets politiques et économiques différents. Hiez, D., eta Lavillunière E. (dir) *Vers une théorie de l'économie sociale et solidaire*. Collection: Droit & économie sociale et solidaire, 17-32, Paris: Éditions Larcier.
- ESTIVILL, J. (2015). Prólogo. El asociacionismo vector de la Economía Solidaria. Laville, J.L, *Asociarse para el bien común. Tercer sector economía social y economía solidaria*, 7-31, Icaria, Bartzelona.
- ERRASTI, A; BRETOS, I. eta ETXEZARRETA, E. (2016): What do Mondragon coopitalist multinationals look like? The rise and fall of Fagor Electrodomésticos S. Coop. and its European subsidiaries. *Annals of Public and Cooperative Economics*, 87, 3: 433-456.
- ETXEZARRETA, 2012: *Gizarte Ekonomiaren aukera zaintzen krisiaren aurrean: Gipuzkoako pertsona nagusien alorra aztergai*, Doktorego Tesia, UPV/EHU, Bilbo. <http://www.euskara.euskadi.eus/w10aTesDocWar/tesisDoctoralJSP/w10aVerFichaTesisDoctoralLookUpDispath.do>
- ETXEZARRETA, E. PÉREZ DE MENDIGUREN, J.C. eta MORANDEIRA J. (2014): Sobre el concepto de Economía Social y su proceso de consolidación. Bretos, I. y Perez de Uralde, J.M. (2014): *Economía Social Vasca y Crisis Económica. Análisis de su evolución socioeconómica entre 2009 y 2013*, OVES. 11-17.
- HERAS-SAZARBITORIA, I. (2014): The ties that bind? Exploring the basic principles of worker-owned organizations in practice. *Organization*, 21(5): 645-665.
- HIEZ, D. eta LAVILLUNIÈRE, E. (zuz) (2013): *Vers une théorie de l'économie sociale et solidaire*. Collection: *Droit & économie sociale et solidaire*, Larcier, Paris.
- LAVILLE, J.L. (2015): *Asociarse para el bien común. Tercer sector economía social y economía solidaria*, Icaria, Bartzelona.
- LAVILLE, J.L. eta GARCÍA-JANE, J. (2009): *Crisis capitalista y Economía Solidaria*. Bartzelona: Icaria.
- LOYOLA, A. eta ORTEGA, I. (2014): El compromiso con la transformación social de las cooperativas del Grupo Mondragón: un análisis de las aportaciones históricas y unas reflexiones sobre los retos actuales y de futuro, *XV Congreso CIRIEC de Investigadores en Economía Social y Cooperativa* delakoan aurkeztutako komunikazioa.
- MONZÓN, J.L. (2016): La economía social en la literatura económica y en los hechos. 30 años del CIRIEC-España, *Revista Ciriiec-Economía*, 88: 287-307. Valentzia.
- MONZÓN J.L. eta CHAVEZ, R. (2016) (dir): *Evolución reciente de la economía social en la Unión Europea*. CES/CSS/12/2016/23406. CESE (Comité Económico y Social Europeo).
- ORTEGA, I. eta URIARTE, L. (2015): Arrasateko kooperatibagintzaren dilemak eta erronkak. Fagor Etxetresnak kooperatibaren krisiaren ondotik, *Lanki Koadernoak*: 11, Eskoriatza.
- PEARCE, J. (ed.) (2003): *Social enterprise in anytown*. Calouste Gulbekian Foundation, Londres.
- PÉREZ DE MENDIGUREN, J.C. (2014): *Debates conceptuales y aspectos organizativos de la Economía Solidaria: el caso de REAS Euskadi*. Tesis Doctoral. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU).

- PÉREZ DE MENDIGUREN, JC. ETXEZARRETA, E. eta GURIDI, L. (2009): *Ekonomia Soziala, Enpresa Soziala eta Ekonomia Solidarioa: kontzeptu ezberdinak eta eztabaida berbera. Ekonomia Solidarioaren Paperak*, 1: 1-41.
- PÉREZ DE MENDIGUREN, JC. eta ETXEZARRETA, E. (2015): *Ekonomia sozial eta solidarioa: zer da eta nola ulertzen da?*, *Gizarte Ekonomia Euskal Aldizkaria, GEZKI*, X. urteurrena, 2014, 13-34.
- PÉREZ DE MENDIGUREN, JC. eta ETXEZARRETA, E. (2015): *Sobre el concepto de Economía Social y Solidaria: aproximaciones desde Europa y América Latina. Revista de Economía Mundial*, 40:123-144.
- PÉREZ DE MENDIGUREN, JC. eta ETXEZARRETA, E. (2016): *Otros modelos de empresa en la economía solidaria: entre la retórica y la práctica. Lan harremanak: Revista de relaciones laborales*, 33: 227-252.
- POLANYI, K. (1944): *The great transformation: Economic and political origins of our time*. Rinehart, New York. E. Suarez, 2007-trad. esp. *La gran transformación. Los orígenes políticos y económicos de nuestro tiempo*. Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires.
- PUIG, C. (coord.) (2013): *Economía Social y Solidaria: conceptos, prácticas y políticas públicas*, Hegoa, Bilbo.
- SALAMON, LM. eta ANHEIER, H. (1997): *Defining the nonprofit sector: a cross-national analysis*, Institute for Policy Studies, The Johns Hopkins University.
- SALAMON, LM., and SOKOLOWSKI, SW. (2016): *Beyond nonprofits: Re-conceptualizing the third sector. VOLUNTAS: International Journal of Voluntary and Nonprofit Organizations*, 27(4), 1515-1545.
- SARASUA, J. eta UDAONDO, A. (2004): *Autogestión y globalidad: Situar la autogestión económica en el mundo actual. Lanki Ikertegia*, Unibertsitatea.
- WANDERLEY, F. (coord.). (2016): *La economía solidaria en la economía plural: Discursos, prácticas y resultados en Bolivia*, Hegoa, Bilbo. [http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/291/La\\_economia\\_solidaria\\_en\\_Bolivia.pdf?1488539875](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/291/La_economia_solidaria_en_Bolivia.pdf?1488539875)

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismitik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzak eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegari so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorra Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

